

OARSOALDEKO 2025-2035 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN AURKEZPENA

Posted on 07/07/2026 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Eskualde lehiakorrak](#), [Oarsoaldea](#), [Plan Estrategikoa](#)

Uztailaren 1ean, Agustinak Zentroan, [Oarsoaldea Garapen Agentziak](#) eskualdeko ordezkari politikoei aurkeztu zien **2025-2035 aldirako Plan Estrategikoa**. Hurrengo hamarkadari begira, eskualdearen erronkak, aukerak eta lehentasunak ikuspegi partekatu batean jasotzen dituen **ibilbide-orria** da dokumentua.

NAIDERek lagundu du Oarsoaldea Garapen Agentziak estrategia hau prestatzen, **eskualdearen diagnostikoa** lantzen, eragileekin **kontraste-prozesua** garatzen, **ekintza-plana egituratzen** eta etorkizuneko **gobernantza-eredua definitzen**.

Ekitaldian, Jokin Etxebarriak, NAIDERreko Ekonomia eta Berrikuntza koordinatzaileak, strategiaren prestaketa-prozesua eta haren eduki nagusiak partekatu ditu.

Horrelako prozesuek erakusten dute etorkizuneko erronkei **ikuspegi partekatuarekin** heltzea dela lurralde sendagoak, berritzaileagoak eta lehiakorragoak eraikitzeko biderik onena.



